



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da”

2023ko uztailaren 30a  
Urteko 17. igandea (A)

### Mateo 13, 44-52.

“Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du, eta poza erosten du, dituen guztiak saldu eta landa hura erosten du.

“Era berean, Jainkoaren erregetzarekin, harribitxi bila dabilen tratulariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta hura erosten du.

“Jainkoaren erregetzarekin, uretara botatzen den eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Betea denean, bazterrera ateratzen dute; gero, eseri eta onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Berdin izango da munduaren azkenean: aingeruek etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereiziko dituzte, eta sulabera botako. Negarra eta hortzarraska izango dira han”.

Ulertu al duzue hau guztia? galdetu zien Jesusek ikasleei.

Bai erantzun zioten.

Hark esan zien: Beraz, Jainkoaren erregetzaren jakinduriaz jantzia dagoen legemaisua, bere altxorretik zahar eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da.

Ulertu al duzue hau guztia? galdetu zien Jesusek ikasleei.

## ERABAKIA

*José Antonio Pagola*

Ez zen gauza erraza Jesusi sinestea. Batzuek atseginez hartzen zuten haren hitza. Beste batzuek, aldiz, aski duda izan zuen. Arrazoibidezkoa ote zen Jesusi jarraitzea ala zorakeria hutsa zen? Gauza bera gertatzen da gaur: merezi ote du bizitza gizatarrago egiteko haren egitasmoan parte hartzea? Ez ote da zentzuzkoagoa nor bere ongizateaz arduratzea? Bien bitartean, hor eman genezake bizitza osoa erabakirik hartu gabe.

Jesusek bi parabola kontatu zituen landa-jendearen bihotza liluratzeko. Nekazari pobre bat berea ez duen soroa aitzurtzen ari da. Halako batean «ezkutuko altxor» batekin egin du topo. A, zer nolako ezustekoa eta poza! Ez du pentsatzen jarri beharrik. «Poz-pozik», duen guztia saldu eta altxorraz jabetu da.

Gauza bera gertatu zaio «harribitxi finen merkatari» aberats bati ere. Halako batean harribitxi ezin baliotsuago batekin egin du topo. Adituegia da gauza horietan bere usaimenak engaina dezan. Eta bat-batean erabaki du. Duen guztia saldu eta harribitxiak jabetu da.

Jainkoaren erreinua «ezkutuan» dago. Jende askok ez du aurkitu oraindik Jainkoak duen mundu berri baten egitasmoa. Halere, ez da hori iritsi ezineko misterioa. Jesusengan dago «ezkutatua», Jesusen bizitzan eta mezuan. Jainkoaren erreinua aurkitu ez duen kristau-elkarteak ez daki zertarako jaiotzen den Jesus.

Jainkoaren erreinua aurkitzeak aldarazi egiten du hura aurkitu duenaren bizitza. Nahastezina da halakoaren «poza». Bizitzaren muina aurkitu du, bizitza aldaraz dezakeen balioa. Kristauok Jesusen egitasmoa aurkitzen ez badugu, Elizan ez da izango pozik.

Parabola hauetako bi protagonistek erabaki bera hartu dute: «duten guztia saldu dute». Ez da «Jainkoaren erreinuaren eta haren zuzentasunaren» bila aritzea baino gauza inportanteagorik. Gainerako guztia gero etorriko da, gauza erlatiboa da beste guztia eta Jainkoaren egitasmoaren meneko izan behar du.

Haxe da Elizan, hots, kristau-elkarteetan hartu beharra dugun erabakirik inportanteena: nolabaiteko hainbat gauzetatik geure burua askatu, buru-belarri Jainkoaren erreinuari ekiteko. Alferrikako direnak erantzi. Beste onura batzuez ahaztu. «Galtzen» jakin, egitasunean «irabazteko». Horrela jokatzeko badugu, Eliza bihotz-berritzeko lanean ariko gara.